

Bizitxikidetza



Gizarte eta osasun
zerbitzua



Partaidetza eta
gizarte ehuna



Errespetua eta
inklusioa



Aire zabaleko espazioak
eta eraikinak



Etxebizitza

Bizitxikidetza. Belaunaldien arteko bizikidetza eredu bat Txurdinagabarri egoitzan

BiziTxikidetza belaunaldien arteko proiektua da, Txurdinagabarri egoitzak (Bilbon) 2015ean martxan jarria, adinekoen eta belaunaldi gazteagoen artean lotura nabarmenak sustatzeko helburuarekin. Proiektua duela hainbat urte hasi bazen ere, izena aurtan sortu da, «bizikidetza» eta «txiki» hitzen arteko jolasetik, eta ekimenaren funtsa islatzen du: esperientziak, denbora, ikaskuntzak eta emozioak partekatzea, hurbiltasuna, errespetua eta elkarrekikotasuna oinarri hartuta.

Jardueraren ardatza haxe da: belaunaldien arteko harremanak, aberasgarriak izateaz gain, funtsezkoak direla adinekoen garapen pertsonal, emozional eta sozialerako. Nazio Batuen Erakundeak Zahartzeari buruzko Bigarren Mundu Batzarrean (2002an) jaso zuenez, gizarteak, adin guztietako pertsonentzat izatekotan, belaunaldien arteko elkarbizitza eta lankidetza sustatu behar ditu, familiaren barruan eta kanpoan. Egoitzetan kontaktu hori oso mugatua izaten denez, are beharrezkoagoa da. Bizitxikidetzak behar horri erantzuten dio.

Proiektuak bi ekintza lerro nagusi ditu:

Egoiliarren eta hiru ikastetxetako —Begoñazpi, Urdaneta eta Berriotxo— batxilergoko ikasleen arteko lankidetza jarraitua. Planifikatutako jarduerak egiten dira astean behin; besteak beste, lantegiak, jolasak, antzerkia, sukaldaritza, teknologia, joskintza edo ipuin kontaketak.

Egoitzako langileen seme-alabek zenbait jardueratan parte hartzea: gimnastika saioetan, txangoetan edo belaunaldien arteko ospakizunetan. Noizean behin izaten dira, baina oso partaidetza garrantzitsua izaten da, kontziliazioaren eta komunitate familiar zabalduaren ikuspegi berritzailea ematen baitu.

Halaber, ospakizun berezietan eta txango batzuetan parte hartzeko gonbita luzatzen zaie erabiltzaileen senitartekoei, bilobak barne.

2025-2026 epealdian, berrikuntza gisa, «Lagunkoitasun mapa» jarduera gehituko da. Horretan, adinekoek eta gazteek oztopoak, gune garrantzitsuak eta hobetzeko proposamenak identifikatuko dituzte zentroaren ingurunean, bizipen pertsonaletik abiatuta eta hezkuntzaren, emozioen eta adierazpenaren alorreko helburuekin.

Bizitxikidetzari esker, partaidetzako espazio ireki eta dinamikoa da egoitza; esperientzia partekatuan oinarrituta, komunitatea sortzen eta isolamenduari aurre egiten laguntzen du.

1. Erakunde sustatzaileak

Aita Menni Gizarte Zerbitzuak.

2. Erakunde motak

Pribatua

3. Xede taldea

Txurdinagabarri egoitzan bizi diren adinekoak, batxilergoko ikasle gazteak eta zentroko langileen seme-alabak.

4. Lurralde eremua

Bilbo (Bizkaia)

5. Etiketak

Belaunaldiartekotasuna, partaidetza, komunitatea, bizikidetzak, zahartze aktiboa, lagunkoitasuna, kontziliazioa, ahalduntzea, egoitza irekia.

6. Helburuak

Helburu orokorra:

Adinekoen eta gazteen arteko elkarrekintza sustatzea, garapen pertsonala, gizarte kohesioa eta ongizate emozionalaren hobekuntza ahalbidetzen dituzten esperientzia partekatuen bidez.

- Adinekoentzako berariazko helburuak:
- Egoitzako bizitza komunitarioan parte hartze aktiboa bultzatzea.
- Autokontzeptua eta autoestimua indartzea, baliagarritasun zentzuaren bidez.
- Bakardade sentimendua arintzea eta giza kontaktu afektiboa areagotzea.
- Gogo aldatzea eta bizitasuna hobetzea, beste belaunaldi batzuekin lotura emozionala eratuz.

- Gazteriari buruzko estereotipoak haustea eta gizartearen ikuspegi integratzaileagoa sustatzea.
- Trebetasun berriak ikastea, bereziki eremu digital, artistiko edo ludikoan.

Gazte eta haurrentzako berariazko helburuak:

- Adinekoekiko gizarte trebetasunak, enpatia eta errespetua garatzea.
- Zahartzeari buruzko aurreiritziak positiboki aldatzea.
- Bizitza komunitarioan eta gizarte ekimen adierazgarrietan aktiboki parte hartzea.
- Zahartze prozesuari buruzko ulermena hobetzea, ikuspegi integratzaile batetik.
- Adinekoen ezagutza eta esperientzia aintzat hartzea, bizitzako ikaskuntzaren zati gisa.
- Gizarte konpromisoa sustatzen duen hezkuntza ingurune bat bideratzea.

Erakundearen berariazko helburuak:

- Egoitza ingurunera zabaltzea, eta, horren bidez, egoitza eredu bizi eta konektatua sortzea.
- Laneko kontziliazioa sustatzea, langileen seme-alaben partaidetzaren bidez.
- Zaintza kolektiboaren kultura sendotzea, belaunaldiartekotasuna elkarrekin bizitzeko modu naturala izan dadin.
- Zentroaren zeregina indartzea, parte hartzeko, trukatzeko eta ikasteko modu gisa.

7. Metodologia

Programa bat dator Imersok eta Europako hainbat esparruk definitutako belaunaldien arteko programen definizioekin eta orientabideekin: planifikatutako jarduerak dira, jarraituak, bi noranzkokoak, eta helburu zehatzak dituzte, baita ebaluazio kualitatiboa ere. Dinamikak denen artean diseinatzen dira, aldez aurretik irakasleekin bilerak egin, egoiliarren interesak bildu eta baterako hausnarketa saioak egin ostean. Jarduerak talde txikietan egiten dira, begiraleen laguntzarekin; hain zuzen, segurtasuna eta errespetua nagusi izateaz eta denek ondo pasatzeaz

arduratzen dira begiraleak. Metodologiak giza kontaktua eta ikaskuntza esanguratsuak lortzen laguntzen du.

Familiaren barruan belaunaldien arteko harremanak ohikoak eta atseginak badira ere, familiatik kanpo —batez ere egoitza inguruneetan—, harreman gutxi daude, edo bat ere ez. Hain zuzen, egiaztapen hori izan zen proiektuaren abiapuntua. Hainbat azterlanek adierazten dutenez —Imsero, 2009; Nazio Batuak, 2002—, egoitzetan bizi diren adinekoek aukera gutxiago dituzte gazteekin harremanak izateko, eta horrek isolatzeko, rola galtzeko eta autoestimua txikitzeko arriskua areagotzen du. Orobat, gazteek ez dute aukera handirik izaten adinekoekin testuinguru errealean eta instituzionalizatu gabeetan bizitzeko, eta, horren ondorioz, zahartzeari buruzko estereotipo negatiboak bere horretan jarraitzen du.

8. Alderdi berritzalileak

Bizitxikidetzak jardunbide berritzaile ona da, egoitza ingurune batean belaunaldien arteko harremanak egituratzen dituelako, jarraitutasunez eta afektibitatean oinarrituta. Interakzio puntualeko eredu tradizionalen aurrean, proiektua zentroaren egunerokotasunean sendotu da, 2015ean hasi zenetik; beraz, iraunkorra eta erreplikagarria dela erakutsi du, eta eraldaketa eragiteko gaitasuna duela. Jarraian, haren elementu berritzaile nagusiak azalduko ditugu:

1. Komunitateari irekitako egoitza eredua.

Bizitxikidetzak egoitza gizarte eta hezkuntza ingurunera irekitzea sustatzen du; hau da, partaidetza gune aktibo bihurtzen du. Kanpoko eragileak gonbidatu baino zerbait gehiago egiten du: harreman iraunkorrak, planifikatuak eta bi noranzkokoak ehuntzen ditu hiru ikastetxerekin, bai eta, duela gutxitik hona, langileen senitartekoekin ere.

2. Belaunaldien arteko askotariko partaidetza: gazteak + haurrak.

Zentroko langileen seme-alabak belaunaldien arteko jardueretan txertatzea da proiektuaren lerrorik berritzaileenetako bat. Egoitzetan oso ohikoa ez bada ere, ekimen horrek lana eta familia bateragarri egitearen dimentsioa gehitzen du, balio erantsi gisa: adinekoak ez ezik, profesionalak ere zaintzen ditu, haien senitartekoak esperientzia aberasgarri batean inplikaraziz. Haurrek lantegi, irteera, ospakizun eta dinamika ludiko egokitueta hartzen dute parte.

3. Plangintza didaktikoa eta partaidetzako metodologia.

Programa ez da jarduera puntual edo sinboliko bat; arreta handiz planifikatzen da ikasturte bakoitzean: hasi aurretik, bilerak egiten dira ikastetxeekin, gazteen eta adinekoen interesak biltzen dira, aurkezpen saioak egiten dira, eta lantalde txikiak

eratzen dira. Jarduera bakoitzaren emaitzaren gainetik harreman afektiboa lehenesten duten begiraleek laguntzen diete talde horiei. Horrek trukea kalitatezkoa eta etengabea dela bermatzen du.

4. Hiri ingurunea bizipenetik txertatzea: «Lagunkoitasun mapa».

2025-2026 ikasturtean, «Lagunkoitasun mapa» izeneko lerro berria gehituko da: belaunaldien arteko behaketa eta hausnarketa partekatuko proposamena da, egoitzaren hurbileko inguruneari buruzkoa. Hasiera batean, jardueraren helburua ez da administrazioa inplikatzeko, baizik eta pentsamendu kritikoa, elkarrizketa eta auzoaren jabetze sinbolikoa eragitea. Partaideek berek egindako horma irudi baten edo dokumentu bisual baten bidez gauzatuko da. Ikuspegi hori bat dator «hirigintza afektiboa» deritzonarekin; izan ere, hirigintza horrek proposatzen duenaren arabera, hiri espazioaren balio emozionala bertan bizi direnen bizipenetatik hartu behar da aintzat.

Gainera, aipatu behar da 2025eko ekainaren 19an zentroak taldekako irteera bat antolatu zuela egoiliarrentzat eta eguneko zentroko erabiltzaileentzat, Bilboko Udalak «Bilbo, adinekoekin adeitsua den hiria» IV. Planaren inguruan egindako informazio saioetara. Ekintza hori partaidetza sozial eta komunitarioarekiko konpromiso aktiboan kokatzen da, eta, horri esker, adinekoek ikusiko dute zer aukera dituzten hiria hobetzeko udal prozesuetan parte hartzeko, beren esperientzian eta ikuspegian oinarrituta.

Jardueraren balorazioa oso positiboa izan zen talde profesionalaren eta partaideen aldetik, eta ondorio hau izan du: Bizitxikidetza proiektua lankidetza modu berrietara hedatzea, belaunaldien arteko, komunitate barruko eta partaidetzakoetara.

5. Egoitza espazioa eraldatzea.

Egoitzako eremu komunetan (bisita aretoan, esaterako) haurrentzako jolas guneak sortu izanak argi uzten du egoitza belaunaldien arteko bizikidetzarako lekua dela, eta ez adinekoak zaintzeko leku bat soilik. Horrela, erakunde itxien irudia hautsi egiten da, eta ingurune atseginagoa, humanoagoa eta erakargarriagoa sortzen da, bai egoiliarrentzat, bai haien senitarteko eta bisitarientzat.

6. Transferigarritasuna.

Bizitxikidetza erraz erreplika daiteke beste zentro batzuetan, ez baita inbertsio handirik behar. Metodologia humano eta iraunkorretan oinarritzen da: plangintza arduratsua, partaidetza aktiboa, hezkuntza ingurunearen inplikazioa eta lotura afektiboen sorrera. Tokiko beste errealtate batzuetara egoki daiteke, barne baliabideak badaude eta taldeak konpromisoa hartzen badu.

7. Zeharkako inpaktua.

Proiektuak hainbat mailatan eragiten du: emozionalean (ongizatea, autoestimua, aintzatespena...), sozialean lotura komunitarioak, kulturean jakintza trukea eta antolaketakoan kontziliazioa, erantzukidetasuna, hezkuntza berrikuntza eta berrikuntza soziosanitarioa. Horren guztiaren ondorioz, proposamen integrala da, laguntzatik harago baitoa eta zaintza partekatuen eremuan kokatzen baita.